

Terexa Goienetxe Danboriena

*Etxalar,
Nafarroa
(1927)*

Aurkibidea

Biografia



Etxalarren sortu zen,
Larrabetan. Guraso biak
Etxalarkoak zituen.

Zintak

ETL-018

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-08-07
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Zenberena

- **Erref:** ETL-018/001
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zenberena nola egiten den azaltzen du. Gazura paratu egosten eta irakiten hasten denean goiti ateratzen dena koilara batekin bildu eta azpil batera bota

2. Gazura alorrean edateko

- **Erref:** ETL-018/003
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:01:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gazura egosita edaten zuten. Landara pitxerretan eramaten zuten, arto-jorran ari zirenentzat. Ez zuten alorrean bazkaltzen, etxera itzultzen ziren.

3. Komuna

- **Erref:** ETL-018/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:02:31. **Bukatu:** 00:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Komuna beti izan dute. Komuna hutsa zen.

4. Ilargi eta izarrei begiratu eguraldia igartzeko

- **Erref:** ETL-018/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ilargi eta izarrei begiratuta, eguraldia igar daiteke. Izar iheskorren norabidea

ikusita, biharamunean haizea nondik etorriko den jakin daiteke. Ilargiak aro bat du, baina bigarren bat duenean, kontuz, euria dator. Izarrak bakan direlarik, idorra. Goiz gorri, arrats euri.

5. Animaliei begiratu eguraldia igartzeko

- **Erref:** ETL-018/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:08:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Animaliei begiratuta, eguraldia igar daiteke. Armiarmak ateratzen badira, euria. Aziendak belaian joka eta dar-dar, eguraldi aldaketa. Zizareak goiti ateratzen badira, trumoiak eta beheiti ateratzen badira, euria. Sugeak ateratzen badira, tormenta. Okilak kantatzen badu, euria. Katuek eta zakurrek muturra garbitu eta hanka aurpegira eramaten badute, euria. Neguan, ardiak, behiak eta behorrak menditik jaisten badira, eguraldi txarra (hotza).

6. Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak 1

- **Erref:** ETL-018/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:08:17. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak. Zorrotzailearen deia entzunda, euria. Hezurretako mina izanda, eguraldi aldaketa.

7. Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak 2

- **Erref:** ETL-018/012
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eguraldia igartzeko bestelako sinesmenak. Paretetan hezetasuna baldin bada, eguraldi aldaketa. Mendebaleko haizea heldu bada, euria.

8. Haize klaseak

- **Erref:** ETL-018/014
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haize klaseak. Haize hegoa edo ero-haizea, iduzki-haizea, ipar-haizea, nortehaizea, beheko haizea, zehar-haizea, "akeda" (?) (haize-zurrumbiloa).

9. Ortzederra eta azeri-ezkontza

- **Erref:** ETL-018/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:13:21. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ostadarrari ortzederra deitzen diote; bi daudenean, berriz, azeri-ezkontza. Ortzederrak ura hartzen du.

10. Ilargiari begiratu

- **Erref:** ETL-018/017
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zerria ilargi-zaharrearantz hiltzen zuten. Arbolak botatzeko orduan ilargiak eragin handia duela azaltzen du. Erein eta landatu ilargi-zaharrearantz egiten da. Ilea mozteko ere ilargi-zaharra omen da hoberena. Aziendari arra emateko eta ongarria ateratzeko ere kontutan hartzen da ilargia.

11. Gaitzak sendatzeko sinesmenak

- **Erref:** ETL-018/018
- **Iraupena:** 0:07:04. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:26:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gaitz fuerteak mezak aterata sendatzen direla esaten zen. Esate baterako, "estropesia" (gorputza puztu edo hazten omen da) sendatzeko meza ateratzen zen eta gerrian "trentzilla" paratu behar zen, hiru korapilo eginda. Horretaz gain, mahai gainean, zapi zuri baten gainean, moskatel botila eta bederatzi bizkotxo ateratzen ziren; bederatzi kopa moskatel edan behar ziren egunero ordu berean. Azkenik, San Estropo egunean dena erre behar zen. Igantziko Elvirarengana joaten ziren gaitza sendatzeko. Medikuen jarrerari buruz aritzen da.

12. Sorginak 1

- **Erref:** ETL-018/020
- **Iraupena:** 0:09:56. **Hasi:** 00:28:24. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sorginen istorio anitz kontatzen ditu. Sunbillako errekan izaten zen sorginen erregina. Sorginak ateratzen zirenean zer esan eta zer egin behar zen azaltzen du. Sorginek jendea eritzen zuten. Sorginkeria sendatu behar zen hil aurretik. Azienden itxura hartzen zuten sorginek. Mezak aterata sorginkeriak amaitzen ohi ziren.

13. Sorginak 2

- **Erref:** ETL-018/021
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sorgina jotzen denean, beste emakume bat ateratzen da eta eritzen da. Sorginengandik babesteko behatzak gurutzatu behar dira. Gauaz, behar ez zen tenorean oilarra entzuten zutenean, gatzak botatzen zuten. Sorginak bokatak egiten aritzen omen ziren beheko bordan. Beltzez tapatuta ibiltzen ziren sorginak. Sorginak kotxean joaten dira leku batetik bestera. Sorginak Akeler parajeen egoten ziren.

14. Apezak erauntsia mendira bota

- **Erref:** ETL-018/023
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:43:27. **Bukatu:** 00:44:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Erauntsia heldu zelarik Don Martin apezak erretoa egiten zuen belauniko eta mendira botatzen zuen erauntsia. Etxe batean ezin zuten lorik egin txepetak beti kantari ari zirelako eta apezak beheiti bidali zituen.

15. San Juan. Trumoiak direlarik

- **Erref:** ETL-018/025
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:45:17. **Bukatu:** 00:47:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

San Juan bezperan sua egiten zuten. San Juanen bedeinkatutako erramuak sutara botatzen diratrumoiak direlarik; aizkora ere ahoz goiti paratu behar da trumoiak direnean.

16. Erremedioak 1

- **Erref:** ETL-018/027
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:48:12. **Bukatu:** 00:50:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxeko erremedioak. Zintzurreko minarendako, arto irin beroa edo hauts beroa paratzen zuten. Buruko minarendako, kamamila. Haginetako minarendako, hauts beroa (zapi batean). Erredurendako, behi kaka

17. Erremedioak 2

- **Erref:** ETL-018/029
- **Iraupena:** 0:08:17. **Hasi:** 00:50:31. **Bukatu:** 00:58:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Min horiarendako (gibleko eritasun bat), zorriak jan (bederatzi egunez). Buruko minarendako, karraskila egosita. Giharreko minarendako, olio beroa. Handitsuetarako, enplastu bi: basma belarrarekin egindako tortilla edo baratzuri frijitua, argizaria, erresina eta olio. Mingainako legarrarendako, giltza pasatu. Kalitxendako, gatz kaxa batean sartu eta gero bota. Erredurentzako, kisua olioarekin. Gangarabilendako, beroa. Sugeen ausikiendako, salbea aldrebez errezatzen da.

18. Erremedioak 3

- **Erref:** ETL-018/030
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:58:48. **Bukatu:** 01:01:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Azienden zingirioa sendatzeko, errezatzen zen. Emakume batek egiten zituen otoitz horiek. Behiei odola kentzen zieten "erraiatzeko"; tratante batek egiten zuen. Behiak erditzen zirelarik litro bat ardo ematen zieten, bizkortzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com